

Donostia, 2020ko irailaren 18a

UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

PINUDI PLAZAKO KOMUNEI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegik, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Pinudi plazako komun en egoerari buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Hiriko komun publiko batzuetako instalazioak hobetzeko premia larria dago, herritarren irisgarritasun unibertsala bermatzeko. Komun publiko horietako batzuk gune publikoaren mailaren azpitik daude, eta, zaharrak direnez, ez dituzte irisgarritasun baldintzak betetzen. Pinudi plazako komun kasua paradigmaticoa da; izan ere, eskailera batzuetatik sartzen da, eta ez dago beste biderik mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat. Beraz, komun publiko horiek, nahiz eta oinezkoentzako oinarrizko zerbitzu bat izan eta herritar guztien eskura egon beharko luketen, ez dira irisgarriak denentzat.

Horrez gain, ordea, Pinudi plazako komunitan bada gehiegi luzatzen ari den beste arazo bat ere: euri asko samar egiten duen bakoitzean, urez betetzen da, putzuak sortzen dira, eta komunitako zorua zikintzen da.

Komun horietako langileek askotan ohartarazi dute arazo horretaz, baina ez da erantzun egokirik eman.

Hil honetako batzordean, Diez zinegotziak adierazi zuen arazoa larriagotu egin dela egiten ari diren saneamendu obren ondorioz, baina adierazi ere zuen obra horiekin konponduko dela komunak istiltzeko eta urez betetzeko dagoen arazoa.

Kontuan hartuta komuneko langileek urte asko daramatzatela egoera hori jasaten eta askotan hainbat orduz itxi behar izan dituztela komunak, garbiketa lanak egiten zituzten bitartean, beharrezkotzat jotzen dugu egoerari presazko erantzun iraunkor ematea. Era berean, beharrezkotzat jotzen dugu komun publiko guztietan irisgarritasuna bermatzea.

Hori horrela, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari eman diezaiola irtenbide azkar eta behin betiko bat Pinudi plazako komunetan istiltzeko eta urez betetzeko dagoen arazoari.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari berma dezala hiriko komun publikoetako instalazioen mantentze egoki bat.
3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari egin ditzala egin beharreko esku-hartzeak hiriko komun publiko guztietan irisgarritasun unibertsala bermatzeko.

Haizea Garay Gallastegi
Elkarrekin Donostia taldeko zinegotzia